

Mitxoleta bixi-bixiak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Senide du lo-belarra (*Papaver somniferum*), baina haren aldean, bixia da mitxoleta (*Papaver rhoeas*). Mitxoleta ezaguna da oso; "urdemutur" eta "urdamutur" ere deitzen omen zaio. Udaberria joan udaberria etorri, urtero lotsagorritzen ditu lur sailak. Neure lotsaren gorria ere berpizten du, Claude Monet margolariaz urtean behin besterik ez naizela gogoratzen berrituz.

Feniziarrek, grekoek eta erromatarrek Mediterraneoan barrena laboreak ekarri zituztenean, hazi haien tartean zetozen soroetako beste landareen haziak ere, nahasian; batez ere, mitxoletarena bezala ia ikusezinak zirenak. Eta landutako sail berrietan bapo. Laboreen aldean, azkar loratu eta hazia ematen du. Haien buruak heldu eta biltzeko moduan daudenerako, mitxoletak haziak sakabanatu ditu, eta ez gutxi: landare bakoitzak 50.000 eta 60.000 arteko hazi pila ematen du. Landare ugaria eta ziklo laburrekoa izateak mutatzeko eta egokitzeko gaitasuna dakarkio. Adibidez, gaur egun soroetan era-

biltzen diren herbizida gero eta hilgarriagoen eragina saihesteko eta aurre egiteko ahalmena.

Mitxoleta landare indartsua da, aitzindaria. Beste landareek baino lehenago bereganatzen ditu lurrak. Lurrak ez, alorrak esan beharko nuke. Lur landuak atsegin ditu, mugituak. Zalaparta eta iskanbila non, han etorriko da, agudo asko! Hondeaitzurra edo goldea edo pikatxoia non dantzatu den, han, lur harrotuan etorriko da, bixi-bixi. Lur hori bakean utzi eta landare segida naturala hasten denean galduko ditu bere kemen guztiak; beste landareen aurrean belarriak bildu, eta beste norabait alde egingo du.

Hiru toki izaten ditu ondo bereak mitxoletak: labore soroak, eraikuntzen hondakinak edo erorkinak eta bide bazterrak. Beti gure atzetik hedatu izan da. Bideak ireki, lurrak irauli, eraikuntzak altxa, hondakinak baztertu... Han dago zain. Geu



Mitxoleta (Papaver rhoeas).

ALONSOLEJ-CC BY SA

gara mitxoletaren pagotxa. Baita hautsikin zatarrenak eragiten ditugunean ere. Mitxoletak lur sailak gorritzen dituztenean noizbait han isuritako odola berri eta azaleratzen duela esango nuke. Gu garenean beti izango baita odolezko aztarna txarren bat, bizi izan ginenaren arrasto. Guda zelaietan, batez ere guda modernoetako zelaietan, beti ugaritzen da mitxoleta, bonbek harrotutako lurretan. ■



Hirutasuna

Hiru elkar hartuta. Gure kultura atlantikoko lurretako hirutasun nagusia badator. Artoa-babarruna-kuia. Oraintxe sortzen ari dira, hiru bat eginda. Soroari, kulturaren alorrari etekin hobea ateratzeko elkartasuna. Babarrunak lurriari nitrogenoa ekarriko dio, sustraietan apopilo hartuko dituen bakterio nitrofiloen bidez. Nitrogeno hori ederki baliatuko dute artoak eta kuiak. Artoak lastoa edo zuztarra eskainiko dio babarrunari luzatzeko eta lurreko hezetanari ihes egiteko. Artoaren hostoak, erretan antzekoa edo aska-itxurakoa bera, ihintza oinaren aldera bideratuko du, babarruna ere ureztatuz. Artoaren hostailak itzala ematen die babarrunaren lekei, azal fineko ale goxoak ekar ditzan. Kuia, berriz, ederki hedatuko da soroko zirrikietan. Artoa, babarruna eta kuia diren ganbaretan betor negu gorriena!

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO